



Alonsotegiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra
Irizpideak eta helburuak



Ayuntamiento de
Alonsotegi

TERRITORIO CIUDAD SLP

TAPER

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	5
2.	ALONSOTEGIKO HAPOREN PRINTZIPIO ESTRATEGIKO ORIENTAZAILEAK.	7
3.	ALONSOTEGIKO HAPORAKO HELBURUAK, IKUSPEGIA ETA IRIZPIDE NAGUSIAK	9
	1. HELBURUA.....	10
	LURZORUAREN ERABILERA ARRAZIONALA SUSTATZEA, DAGOEN HIRI-EHUNA FINKATZEARI LEHENTASUNA EMANEZ ETA HIRI-HEDAPENEN BEHARREZKOAK EZ DIREN PROZESU BERRIAK SAIHESTUZ.	10
	2. HELBURUA.....	11
	HIRI-LURZORUA FINKATZEARI ETA DAGOEN HIRIAN ESKU-HARTZEAK EGITEARI LEHENTASUNA EMATEA.....	11
	3. HELBURUA.....	13
	HIRI-EHUNAREN TRINKOTASUNA HOBETZEA ETA ERABILERA-ANIZTASUNA LEHENDIK DAGOEN HIRIAN ETA HIRI-EREDUTIK ERATORRITAKO GARAPEN-EREMUETAN SUSTATZEA.	13
	4. HELBURUA.....	14
	MUGIKORTASUN ERAGINKORRA ETA JASANGARRIA BERMATZEA, TOKIKO ESKALARA ETA METROPOLI-TESTUINGURURA EGOKITUA.....	14
	5. HELBURUA.....	15
	HIRI INKLUSIBOA, EKITATIBOA ETA KOHESIONATUA ERAIKITZEA, GENERO-IKUSPEGIA ETA LURRALDE-JUSTIZIA TXERTATUZ.	15
	6. HELBURUA.....	17
	BERTAKO EGOILIARREK ETXEBIZITZA DUINA, EGOKIA ETA ESKURAGARRIA ESKURATZEA ZIURTATZEN LAGUNTZEA.....	17
	7. HELBURUA.....	19
	HIRI- ETA LURRALDE-EREDUA KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOETARA EGOKITZEA ETA HAREN PREBENTZIOAN ETA ARINTZEAN AURRERA EGITEA.	19
	8. HELBURUA.....	20
	INGURUMEN-SISTEMARI PROTAGONISMOA EMATEA ANTOLAMENDU OROKORRAREN EREDUAN, UDAL-AZPIEGITURA BERDEA ZAINDUZ ETA INDARTUZ.....	20
	9. HELBURUA.....	22
	KULTURA-ONDAREA ETA PAISAIA KONTSERBATZEA, BABESTEA ETA HORIEN BALIOA AZPIMARRATZEA.	22
	10. HELBURUA.....	23
	JARDUERA EKONOMIKOAK HIRIGINTZA-ANTOLAMENDU OROKORREAN BEHAR BEZALA TXERTATZEN DIRELA ZIURTATZEA, GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA FAVORATUZ, JASANGARRITASUNAREKIN HARMONIAN.....	23



SARRERA.

Aurrerapenean, herritarren partaidetza-prozesuen emaitzetan eta lurralde-eskumenak dituzten administrazio publikoek egindako txostenetan jasotako Alonsotegiko HAPO berriaren hiri- eta lurralde-eredua definitzeko kontzeptu-oinarriak oinarri hartuta, bai eta EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Alonsotegiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko oinarri izan behar duten **Irizpideen eta Helburuen** proposamen hau egin da.

Dokumentu honek udal-lurraldearen plangintza eta kudeaketa bideratuko duen erreferentziaesparru argi, egituratu eta koherente bat definitzeko beharrari erantzuten dio. Horren helburua hirigintza- eta lurralde-erabakiak ikuspegi estrategiko eta integratzailearekin hartzen direla bermatzea da, herritarren egungo premiekin, garapen jasangarrirako espektatibekin eta autonomia, estatu eta Europa mailako lurralde-politikatik eratorritako konpromisoekin lerrokatuta.

Proposamenak euskal hirigintzaren printzipio gidariak —ingurumen-jasangarritasuna, gizartekohesioa, aukera-berdintasuna, eraginkortasun ekonomikoa eta herritarren partehartzea— Alonsotegiko udalerraren errealitatearekin eta potentzialarekin lotu nahi ditu. Ildo horretan, hemen formulatutako Irizpideek eta Helburuek printzipio horiek gidalerro praktiko eta jomuga egiaztagarri bihurtzen dituzte, hiri- eta lurralde-eredu berriaren formulazioa eta plangintza-prozesuaren fase guztietan erabakiak hartzea orientatuko dituztenak.

Halaber, dokumentua Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH), Euskadiko Hiri Agendarekin (Bultzatu 2050) eta Klima Aldaketaren Euskal Estrategiarekin (Klima 2050) lerrokatzen da, horien ingurumen-jasangarritasunaren, energia-eraginkortasunaren, gizarte-ekitatearen eta klima-erresilientziaren ikuspegiak tokiko testuinguruan txertatuz. Horrela, Alonsotegiko hirigintza-antolamenduak jasangarritasuneko eta bizi-kalitateko helburu globalak eta eskualdekoak lortzen modu aktiboan lagunduko duela bermatzen da.

Ondorioz, proposamen hau udalerraren hiri- eta lurralde-eredu berria eraikitzeko oinarri kontzeptual eta estrategiko gisa eratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoaren interes orokorreko helburuekin bat etorritik, bere lege- eta lurralde-esparruan definitutakoak.



2/

ALONSOTEGIKO HAPOREN PRINTZIPIO ESTRATEGIKO ORIENTAZAILEAK.

Alonsotegik erronka handiak ditu etxebizitzaren, mugikortasunaren, ingurumenaren, gizartekohesioaren eta garapen ekonomikoaren arloetan.

HAPO berriak irtenbideak eman behar dizkie gure herritarren eta gizarte-eragileen oinarritzko beharrei. Horrela, datozen 20 edo 25 urteetako udalerrria diseinatzeko funtsezko tresna eraldatzailea izan behar du, egungo hiri-antolamendua printzipio estrategiko orientatzaile batzuen arabera eraldatzeko moduan. Printzipio horiek udalerrriaren antolamendu berria eraikitzeko oinarriak definitzen dituzte, plangintzako erabakiak zein antolamendu horretatik eratorritako politika publikoak orientatuz. Horietan, hiri-eredu berriaren funtsezko balioak laburbiltzen dira: ingurumen-jasangarritasuna, gizarte-ekitatea, lurralde-eraginkortasuna eta erakundeen arteko ituna.

Ondorengoak dira:

1. **Garapen jasangarria:** hirigintzako funtzio publikoak baliabide naturalen erabilera arrazionala bermatu behar du, eta garapen ekonomiko eta sozial jasangarria sustatuko duen lurralde-eredu bat definitu behar du. Ingurumen-eskakizunak politika publiko eta pribatuetan integratu behar ditu, natura- eta hiri-ondare orekatu eta osasungarri baten belaunaldien arteko babesa ziurtatuz.
2. **Interes publikoarekiko menpekotasuna:** hirigintza-antolamenduak interes orokorrari erantzun behar dio, honako hauek bermatuz:
 - Pertsona guztiek etxebizitza duin eta egokia eskuratzea, etxebizitza babesturako eta bizitoki sozialetarako lurzorua planifikatuz eta erreserbatuz.
 - Garapen ekonomiko orekatua, lurzorua interes publikoko jardueretarako bideratuz.
 - Komunitateak hirigintza-gainbalioetan parte hartzea.
 - Hiri- eta natura-ingurumen egokiaz gozatzea.
 - Kultura-ondarea eskuratzea eta gozatzea.
3. **Hirigintza-plangintzaren eskumena:** soilik hirigintza-antolamenduak sailka eta kalifika dezake lurzorua, erabilerak eta xedek esleituz, lurralde-antolamenduko tresnetarako ezarritakoari kalterik egin gabe.

4. **Ituntzea eta koherentzia:** alde batetik, lurralde- edo hirigintza-arloan eskumena duten administrazio publikoen artean koordinazioa egon behar da, bai eta ituntze soziala hirigintza-antolamenduaren legezko funtzioa betetzeko, ezarritako lurzorua erabilerekiko errespetua bermatuz. Bestalde, hirigintza-antolamenduaren interpretazio edo aplikazio oro koherentziaz eta eraginkortasunez egin behar da, haren lege-funtzioaren arabera.
5. **Herritarren parte-hartzea eta informazio publikoa:** hirigintza-antolamenduak pertsonen eta erakundeen parte-hartzea sustatu eta erraztu behar du fase guztietan: formulazioan, izapidetzean, onespenean eta egikaritzean. Beraz, hirigintza-planetako dokumentazio guztia publikoa izan behar da, eta udalak horien edukia eta aurreikuspenak zabalduko direla bermatu behar dute, lurraldearen egungo egoera eta etorkizuneko irudia erakusten duten tresnen bidez.

3/

ALONSOTEGIKO HAPORAKO HELBURUAK, IKUSPEGIA ETA IRIZPIDE NAGUSIAK

Ondoren garatuko diren helburu, ikuspegi eta irizpide nagusiak HAPOrako adierazitako printzipio estrategiko orientatzaileekin elkarrekikotasun zuzenean egituratzen dira, Alonsotegirako proposatutako hiri- eta lurralde-ereduaren oinarri kontzeptuala direnak. Era berean, sarreran aipatu ditugun eta Alonsotegiko HAPOrako garrantzi handia duten hiru dokumentuen zeharkako irakurketa integratu eta erlazional batetik eraikitzen dira.

Helburu, ikuspegi eta irizpide nagusien definizioak dokumentuari egitura argia, koherentea eta ulergarria emateko beharrari erantzuten dio, plangintzako zehaztapen zehatzak ez ezik, horien oinarri diren arrazoiak eta printzipioak ere ulertu ahal izateko.

Helburuek Planaren xede orokorrak adierazten dituzte eta antolamendua gidatzen duen interes publikoa zehazten dute, honako hauen arloan lortu nahi diren jomugak finkatuz: lurzorua erabilerara arrazionala, hiri-egituraren konfigurazioa, gizarte-kohesioa, ingurumenjasangarritasuna, ondarearen babesa eta bizi-kalitatearen hobekuntza. Hori guztia, hiri-garapen jasangarriaren eta lurralde-baliabideen erabilerara eraginkorraren printzipioen arabera.

Ikuspegiak helburu horiek lortzeko hartu den antolamendu-estrategia globala definitzen du, udalerrriaren ezaugarri fisikoei, ingurumenekoei, sozialei eta funtzionalei erantzunez, eta plangintza honako hauek bideratuz: egungo hiri-ehuna finkatzea eta berroneratzea, hazkundearen euspina, hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarriaren eta lurzoru urbanizaezinaren arteko artikulazio egokia, eta arrisku naturaletatik, paisaiatik eta ingurumen-balioetatik eratorritako baldintzatzaileen integrazioa.

Irizpide nagusiek helburuak eta ikuspegia eraginkortasunez zehazten dituzte, jarraibide homogeenok ezarriz hirigintza-erabakiak hartzeko, lurzorua sailkatzeko eta kalifikatzeko, erabilerak arautzeko eta jarduketak definitzeko, Planaren barne-koherentzia, segurtasun juridikoa eta haren zehaztapenen aplikazio ez-arbitrarioa bermatuz.

Egitura horri esker, plangintzak lurralde-eredu unitario eta egiaztagarri bati erantzuten dio, plangintza xehatuaren bidez hura interpretatzen eta garatzen laguntzen du, eta interes orokorrera egokitzen dela ziurtatzen du, euskal hirigintza-legeriak aurreikusitako baldintzetan.

1. HELBURUA

LURZORUAREN ERABILERA ARRAZIONALA SUSTATZEA, DAGOEN HIRI-EHUNA FINKATZEARI LEHENTASUNA EMANEZ ETA HIRI-HEDAPENEN BEHARREZKOAK EZ DIREN PROZESU BERRIAK SAIHESTUZ.

Alonsotegi bezalako udalerrri batean, Bilboko metropoli-eremuan funtzionalki integratuta dagoena eta urbanizatzeko gai den lurzoruaren erabilgarritasun mugatua, topografia konplexua eta ingurumen- eta baso-balioa duten lurzoruen presentzia handia ezaugarri gisa dituena, hirihazkunde estentsiboak lurralde-, ingurumen- eta ekonomia-inpaktu handiak sortzen ditu. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: lurzoruaren ez beharrezko artifizializazioa, azpiegiturak urbanizatzeko eta mantentzeko kostuak handitzea, sistema natural sentikorrei eragitea, eta oso jasangarriak ez diren mugikortasun-patroiak indartzea. Agertoki horren aurrean, lurzoruaren erabilera arrazionala eta eraginkorra sustatzea lehentasunezkoa da, lehendik dagoen hiri-lurzorua sendotu, hobetu eta berroneratzearen alde egingo duena eta hedapen-prozesuak bilduko dituena, udalerrriak metropoli-sistemaren barruan duen eginkizunarekin bat etorritz.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

- 1. Lurzoru urbanizaezina eta arrisku naturalen menpeko eremuak aktiboki babestea.**
 - a) Ingurumen-, baso-, hidrologia- edo paisaia-funtzio garrantzitsuak betetzen dituzten lurzoruak hiri-hazkundeko prozesuetatik kanpo geratuko dira, udal ingurumensistemaren egitura-zati gisa kontserbatzen direla bermatuz.
 - b) Era berean, arrisku naturalek eragindako eremuetan hirigintza-garapenak egitea eragotziko da, bereziki, ibai-dinamikari lotutako uholde-eremuetan eta malda nabarmenak edo baldintza geotekniko txarrak dituzten mendi-hegaletan, populazioa eta azpiegiturak arrisku-egoeren eraginpean jartzea murriztuz.
 - c) Lurzoru horiek lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeko espezifiko baten bidez eta dagozkion sektore- eta lurralde-zehaztapenen aplikazioaren bidez babestuko dira, antolamendu orokorrean lurraldearen elementu egituratzaile gisa txertatuz.
- 2. Egungo hiri-sarea sendotzea, berroneratzea eta osatzea.**
 - a) Lehendik dagoen hiri-lurzorua sendotzea eta hobetzea lehentasunez sustatuko da, hiri-berroneratzea, eraikuntza-birgaitzea eta hiri-hutsuneak eta -ertzak aprobetxatzea faboratuz, garapen berriak aintzat hartu aurretik.
 - b) Lurzoru urbanizaezinean sakabanatutako kokagune berriak berriaz saihestuko dira, eta eraikuntza mugatuko da EAEko hirigintza-legeriak baimendutako erabileretara eta landa-ingurunearen arazoizko ustiapenari edo behar bezala justifikatutako ekipamendu publikoei lotutakoetara.
 - c) Sendotze-jarduketek lehendik dauden azpiegituren optimizazioan, irisgarritasuna hobetzean eta hiri-zerbitzuak emateko eraginkortasunean oinarrituko dira.

3. Hiri-ertzak trantsizio- eta euste-espazio gisa antolatzea.

- a) Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizaezinaren arteko ukitze-eremuetan, inpaktu txikiko erabilera bateragarriak sustatuko dira, hala nola espazio libreak, azpiegitura berdeak edo paisaia-trantsizioko eremuak, hiri-ehuna ingurunean integratzea indartuko dutenak.
- b) Ertz horiek hiri-hazkundearen funtzio- eta ingurumen-muga gisa eratuko dira, hedapenaren euspenari eta udalerriko paisaia- eta ingurumen-kalitatea hobetzen lagunduz.

4. Lehendik dauden eraikinen erregularizazio baldintzatua eta murriztailea.

- a) Ertz- edo trantsizio-eremuetan lehendik dauden eraikinen edo horien elkarten erregularizazio posiblea salbuespenez eta baldintzapenezko moduan planteatuko da, betiere egiaztatzen bada hiri-integrazio egokia dutela, zerbitzu-sareetara konektatzeko bideragarritasun teknikoa dutela eta hartutako lurralde-ereduarekin bateragarriak direla.
- b) Erregularizazio hori dagozkion antolamendu xehatuko tresnen bidez prestatu beharko da, hirigintzaren aldetik eraginkorrak ez diren edo lurzoruaren erabileran jasangarritasun- eta arrazionaltasun-irizpideen aurkakoak diren egoerak finkatzea saihestuz.

5. Tokiko eta metropoliko baldintzetara egokitutako araudia eta plangintza.

- a) Lurraldearen harrera-ahalmenaren, ingurumen-baldintzatzaileen eta arrisku naturalen analisisan oinarritutako lurzoru-antolamendua aplikatuko da, urbanizaziorako egokiak ez diren eremuak eta erabilera bateragarriak onar daitezkeenak argi eta garbi identifikatzeko aukera emanez.
- b) Zehaztapen horiek hirigintza-araudi baten bidez artikulatuko dira, jasangarritasunaren, lurzoruaren erabileraren eraginkortasunaren eta arriskuen prebentzioaren printzipioekin koherentea dena, plangintza udalerraren lurralde-errealitatera eta metropoli-eremuan integratzera egokitzen dela ziurtatuz.

2. HELBURUA.**HIRI-LURZORUA FINKATZEARI ETA DAGOEN HIRIAN ESKU-HARTZEAK EGITEARI LEHENTASUNA EMATEA.**

Eskala txikiko eta Bilboko metropoli-eremuan erabat integratutako udalerrri batean, hirigarapeneko estrategia egungo hiri-ehuna hobetzera, berroneratzera eta optimizatzen lehentasunez bideratu behar da. Helburu horrek trinkoa, eraginkorra eta ekitatiboa den hiri baten eredia indartzea lortu nahi du, jada urbanizatutako lurzoruaren aprobetxamendua maximizatu, finkatutako inguruneetako bizi-kalitatea hobetu, eta lurzoru urbanizaezinaren eta ingurumenbalioko espazioen gaineko presioa murriztuko duena. Abiapuntutzat hartzen da udalerraren bizitegi-beharrei eta funtzionalei, neurri handi batean, dagoen hiriaren gaineko eskuhartze kualitatiboen bidez heldu ahal zaizkiela, hala nola, eraikitako parkea birgaituz, degradatutako hiri-espazioak berroneratuz, hiri-hutsuneak osatuz eta egungo guneen irisgarritasuna, bizigarritasuna eta funtzionaltasuna hobetuz.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. **Hobetzeko beharra duten hiri-eremuak identifikatzea eta lehenestea.**
 - a) Dagoen hiri-lurzoruaren hiri-diagnostiko xehatua egingo da, eraikuntza-kalitatean, irisgarritasunean, energia-eraginkortasunean, espazio publikoen zuzkiduran eta hiri-zerbitzuetan gabeziak dituzten eremuak identifikatzeko orientatuta.
 - b) Diagnostiko horri esker, esku hartzeko lehentasunezko eremuak zehaztu ahal izango dira, lurralde-ekitateko, gizarte-kalteberatasuneko egoerei arreta emateko eta hiria berroneratzeko potentzialeko irizpideak aplikatuta, betiere gizartekohesioaren eta lurzoruaren gizarte-funtzioaren printzipioekin bat etorritz.
2. **Eraikitako parkea birgaitzea eta espazio publikoa hobetzea.**
 - a) Etxebizitzak birgaitzeko programak bultzatuko dira, dagoen bizitegi-parkearen energia-eraginkortasuna, irisgarritasun unibertsala eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko orientatuak, batez ere antzinatasun handiagoko eraikinetan.
 - b) Osagarri gisa, espazio publikoa hobetzeko jarduketa integralak sustatuko dira, zoladurak, argiteria, hiri-altzariak, zuhaitzak eta irisgarritasun-baldintzak berritzea barne, hiri-inklusioko, -segurtasuneko eta -kalitateko irizpideekin.
3. **Hiri-hutsuneen eta finkatzeke dauden eremuen gorpuzkera eta antolamendua.**
 - a) Hiri-hutsuneak eta hiri-lurzoruko eremuak —finkatze-maila osatugabea aurkezten dutenak— antolatzeari eta balioa emateari lehentasuna emango zaio, horiek udalerrri osoan integratzen faboratuz, bai funtzionalki, bai hiriari dagokionez.
 - b) Aurreikusitako bizitegi- eta zuzkidura-beharrak betetzeko gaitasuna duten hirilurzoruak edo urbanizagarriak dauden bitartean, garapen-eremu berriak irekitzea saihestuko da, horrela, lurzoruaren erabileran eta azpiegitura eta zerbitzuetako inbertsio publikoan eraginkortasuna sustatuko da.
4. **Barne-konektibitatea eta hiri-sarearen integrazio funtzionala hobetzea.**
 - a) Udalerrriaren barne-konektibitatea indartuko da, oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen sare jarraitua eta irisgarria sustatuz, hiri-eremu desberdinen eta dauden ekipamenduen arteko eguneroko joan-etorriak erraztuko dituena.
 - b) Era berean, zerbitzuen eta zuzkiduren integrazio funtzionala sustatuko da, udalerriko eremu guztietatik irisgarritasuna faboratuz eta beharrezkoak ez diren joan-etorri motordunen premia murriztuz.
5. **Hiria berroneratzeko eta sendotzeko hirigintza-tresnak.**
 - a) Hirigintza-antolamenduko eta -kudeaketako tresnek hiri-berroneratzeko estrategia espezifikoa jasoko dituzte, plan bereziak, zuzkidura-jarduketak eta hiri-birgaitzea eta -berrikuntza sustatzeko mekanismoak barne.
 - b) Elkarlaneko kudeaketa publikoko formulak sustatuko dira, tokiko administrazioak, jabetzak eta herritarrek hiri-ingurunea hobetzeko eta mantentzeko prozesuetan

parte har dezaten erraztuko dutenak, jarduketan eta hartutako lurralde-ereduaren arteko koherentzia bermatuz.

3. HELBURUA.

HIRI-EHUNAREN TRINKOTASUNA HOBETZEA ETA ERABILERA-ANIZTASUNA LEHENDIK DAGOEN HIRIAN ETA HIRI-EREDUTIK ERATORRITAKO GARAPEN-EREMUETAN SUSTATZEA.

Helburu honek hiri-eredu eraginkorrako, inklusiboago eta erresilienteago baterantz aurrera egiteko beharrari erantzuten dio, hiri-ehunaren trinkotasun fisikoa eta bizitegi-, ekoizpen-, merkataritza-, zuzkidura- eta aisia-erabileren arteko oreka bermatuko duen dibertsitate funtzionala konbinatuko dituen. Trinkotasuna hobetzeak ez dakar soilki dentsitatea handitzea, baizik eta lurzorua okupazioa optimizatzea, sakabanatzea saihestuz eta hiriko esku-hartze berri bakoitzak hiriaren bizitasunari, kohesioari eta jasangarritasunari lagunduko diela ziurtatuz. Aldi berean, mistotasun funtzionala sustatzea funtsezkoa da automobilarekiko mendekotasuna murrizteko, tokiko ekonomia dinamizatzeko eta egun osoan auzo autosufizienteak eta aktiboak sustatzeko.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. **Bizitegi-eremuetan hurbileko erabilerak eta ekipamenduak sartzea.**
 - a) Hurbileko jarduera ekonomikoak ezartzea sustatuko da, hala nola tokiko merkataritza, zerbitzu pertsonalak, lanerako espazio txikiak edo hirugarren sektoreko erabilera bateragarriak, dauden bizitegi-eremuetan eta antolamendu berrikoetan, joanetorriak murrizteko eta udalerraren autosufizientzia funtzionala indartzeko xedearekin.
 - b) Hirigintza-antolamenduak, hasierako definiziotik abiatuta, ekipamendu eta zerbitzuetarako lurzoru-erreserba egokiak aurreikusiko ditu, haien kokapen eta irisgarritasun egokia bermatuz, eta hiri-ingurune aktibo eta funtzionalen sorrera faboratuz.
2. **Erabilera mistoko eremuak sustatzea desoreka funtzionala duten eremuetan.**
 - a) Espezializazio funtzional handiegia ezaugarri duten hiri-eremuak identifikatuko dira, dela bizitegiak edo ekoizpenekoak, eta erabilera mistoko ereduarentzat eboluzionatzea sustatuko da, antolamendua egokituz eta, hala badagokio, hiri-berrorenatzeko jarduketan bidez.
 - b) Erabilera mistoko eremu horiek modu bateragarrian integratuko dituzte bizitegi-, merkataritza-, zerbitzu- eta zuzkidura-erabilerak, udalerraren eskalarekiko proportzio egokietan, hiri-bizitasunari, segurtasunari eta espazioaren erabileraren eraginkortasunari lagunduz.
3. **Dentsitatea kontrolatzea eta ingurumen-baldintzak edo funtzionalak dituzten eremuei arreta ematea.**
 - a) Hiri-trinkotasuna lurralde-ereduaren irizpide orokor bat bada ere, saihestu egingo da dentsifikazio intentsiboko prozesuak aplikatzea muga espezifikak dituzten

eremuetan, hala nola arrisku naturalek, espazio libreen defizitak edo topografiaren ondoriozko murrizketek eragindako eremuetan.

- b) Kasu horietan, eraikuntza-intentsitateari egokitutako mugak ezarriko dira, eta ingurumen- eta hiri-hobekuntzara bideratutako neurriei lehentasuna emango zaie, hala nola espazio libreak sortzeari edo hobetzeari, lurzoruak birnaturalizatzeari eta hiri-drainatze jasangarrirako soluzioak sartzeari.

4. Hirigintza-araudia egokitzea, erabileren nahasketa errazteko.

- a) Hirigintza-ordenantzak berrikustea eta egokitzea sustatuko da, eremu jakin batzuetan baimendutako erabilerak malgutzeko xedearekin, bizitegi-, ekonomia, gizarte- eta kultura-jardueren baterako existentzia ahalbidetuz.
- b) Berrikuspen horretan, hirigintza-kategoria mistoen edo trantsizionalen definizioa sartu ahal izango da, bai eta funtzio anitzeko eraikuntza-ereduen aldeko irizpideak eta pizgarriak, Alonsotegiko hiri-eskalarekin eta lurzoruaren erabileraren jasangarritasun- eta eraginkortasun-printzipioekin koherenteak direnak.

4. HELBURUA.

MUGIKORTASUN ERAGINKORRA ETA JASANGARRIA BERMATZEA, TOKIKO ESKALARA ETA METROPOLI-TESTUINGURURA EGOKITUA.

Hiri-eskala txikiko eta Bilboko metropoli-eremuan oso integratuta dagoen udalerrri batean, mugikortasun eraginkorra eta jasangarria bermatzeko, ez da azpiegitura handiak ezarri behar, baizik eta dagoen bide-sarea optimizatu eta tokiko eskalara egokitutako irtenbideak aplikatu behar dira. Helburu hori ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna murriztera, oinez eta bizikletaz egindako joan-etorriak sustatzera, garraio publikorako irisgarritasuna hobetzera eta espazio publikoa pertsonen alde berrantolatzea bideratuta dago. Hori guztia lurralde-kohesioa indartzeko, udalerrri barruko eta horren metropoli-ingurunerako eguneroko joan-etorriak errazteko, eta ingurumen-kalitatea eta biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin, irisgarritasun unibertsalaren, energia-eraginkortasunaren eta lurralde-ekitatearen printzipioekin bat etorritik.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. Motorrik gabeko barne-mugikortasuna sustatzea.

- a) Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideen sare jarraitua eta irisgarria hobetzea eta sendotzea sustatuko da, ikastetxeetara, ekipamenduetara, garraio publikoko geltokietara eta hiri-zentralitateko espazioetara egiten diren eguneroko ibilbideei lehentasuna emanez.
- b) Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna hiri-sistemaren oinarritzko azpiegituratzat hartuko da, eta horren ohiko erabilera faboratuko duten jarraitutasun-, segurtasun, seinaleztapen- eta konfort-baldintza egokiak bermatuko dira.

2. Garraio publikoaren eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.

- a) Garraio publikoaren irisgarritasuna eta funtzionaltasuna hobetzea bultzatuko da, eskumena duten administrazioekin eta metropoli-eremuarekin koordinatuta, garraio-nodo nagusiekin eta udalaz gaindiko zerbitzuekin lotura egokia bermatuz.
- b) Garraio-irtenbide malguak ezartzea baloratuko da, hala nola eskariaren araberako zerbitzuak edo ibilbideen eta ordutegiaren doikuntzak, herritarren mugikortasunbeharrei modu eraginkorragoan erantzutea ahalbidetuko dutenak.

3. Espazio publikoa berrantolatzea eta ibilgailu pribatuaren protagonismoa murriztea.

- a) Bizitegi-eremuetan eta zentralitate-espazioetan trafiko motorduna pixkanaka murriztea sustatuko da, trafikoa lasaitzeko, oinezkotze partzialeko edo bideespazioa partekatzeko jarduketan bidez, herritarren erabilerarako espazio publikoa berreskuratuz.
- b) Urbanizazio- eta berrurbanizazio-jarduketek pertsonengan zentratutako hiridiseinuko irizpideak jasoko dituzte, irisgarritasun unibertsala, bide-segurtasuna eta ingurumen-konforta lehenetsiz, landaredia, itzala eta hiri-altzari egokiak gehitzearen bidez.

4. Hurbileko mugikortasun-eredu bat bultzatzea.

- a) Bizitegi-, zuzkidura- eta zerbitzu-erabileren arteko hurbiltasunean oinarritutako hirieredu bat sustatuko da, oinezko joan-etorriak faboratuz eta ibilgailu pribatua erabiltzeko beharra murriztuz.
- b) Sentsibilizazio-ekintzak eta informazio-tresnak garatuko dira, automobilaren erabilera arrazionala eta mugikortasun jasangarriagoko alternatiben ezaguera sustatuko dituztenak.

5. Mugikortasuna eskubide gisa eta gizarte-kohesioko elementu gisa.

- a) Mugikortasun-sistemak biztanle guztien beharrei erantzungo diela bermatuko da, eta arreta berezia eskainiko zaie mugikortasun urriko pertsoneri, adinekoari eta kolektibo ahulei, ibilbide irisgarrien, geltoki egokituen eta espazio publiko inklusiboaren bidez.
- b) Mugikortasun jasangarriaren tokiko kultura sustatuko da, mugikortasunirtenbideen diseinuan herritarren parte-hartzea txertatuz, eta ingurumen-jasangarritasunarekin eta hiriko bizi-kalitatearekin bateragarriak diren joan-etorri ohiturak sustatuz.

5. HELBURUA.**HIRI INKLUSIBOA, EKITATIBOA ETA KOHESIONATUA ERAIKITZEA, GENERO-IKUSPEGIA ETA LURRALDE-JUSTIZIA TXERTATUZ.**

Alonsotegiko hirigintza-antolamendua pertsona guztientzako hiri-ingurune segurua, irisgarria eta funtzionala eratzera bideratu behar da, haien generoa, adina, forma fisikoa edo egoera sozioekonomikoa edozein izanda ere. Eskala txikiko udalerrri batean, topografiak baldintzatutako hiri-egiturarekin eta bizitegi- eta zuzkidura-eremu desberdinen arteko hurbiltasun-harreman

sendoarekin, genero-ikuspegia eta lurralde-ekitatea lurzorua antolatzeko eta ekipamenduak planifikatzeko politiketan zeharka txertatzea bereziki garrantzitsua da. Helburu honek gizartekohesioa zaindu eta indartuko duen hiri baterantz aurrera egitea nahi du, baliabideak, zerbitzuak eta espazio publikoa modu orekatuan banatuz, bai eta herritarrek hiriingurunean egiten dituzten erabilerak, denborak eta esperientziak aitortzen dituen ere. Ikuspegi horretatik, hirigintza-ekintza espazio- eta gizarte-desberdintasunak murrizteko, irisgarritasuna hobetzeko eta espazio publikoaren erabilera inklusiboa eta segurua sustatzeko tresna gisa ulertzen da.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. Hiri-diseinua genero-ikuspegiarekin eta eguneroko bizitzaren arreta.

- a) Hirigintza-plangintzak eta esku-hartzeko proiektuek mugikortasunaren, denboraren erabileraren eta zaintza-espazioen benetako patroien analisia jasoko dute, arreta berezia jarriz emakumeen, adinekoen, haurren eta zaintzaileen beharretan.
- b) Distantzia laburreko hiri-eredua sustatuko da, zerbitzuak, ekipamenduak eta espazio publikoa irisgarriak izan daitezen hurbiltasun-, segurtasun- eta konfortaldintzetan.

2. Espazio publikoaren birdiseinu inklusiboa hiri-gabeziak dituzten eremuetan.

- a) Espazio publikoak hobetzeari lehentasuna emango zaio kalitate-, zuzkidura- edo irisgarritasun-defizitak dituzten hiri-eremuetan, altzari egokiak, landaredia, egonguneak, argiztapena eta herritarren jabetzea eta erabilera erraztuko duten elementuak txertatuz.
- b) Espazio horien diseinuak generoari eta adinari lotutako beharrezko desberdinei erantzun die, ikuspen-, segurtasun-, konfort- eta erabilera aniztasuneko baldintzak bermatuz.

3. Irisgarritasun unibertsala, hiri-antolamenduaren oinarritzko printzipio gisa.

- a) Eraikin publikoetan, ekipamenduetan, kirol-instalazioetan, parkeetan eta espazio libreetan irisgarritasun fisikoa eta sentsoriala bermatuko da, arreta berezia jarriz adinekoei eta dibertsitate funtzionala dutenei.
- b) Printzipio hori modu sistematikoan txertatuko da garapen berrietan eta dagoen hiriehuna hobetzeko jarduketetan, hiri-ekitatearen funtsezko baldintza gisa.

4. Hiri-ekipamenduen banaketa orekatua eta ekitatiboa.

- a) Dauden ekipamenduen kokapenari eta irisgarritasunari buruzko lurralde-analisia egingo da, udalerriko eremuen artean egon daitezkeen desorekak identifikatzeko.
- b) Ekipamendu berriak planifikatzeak edo daudenak berrantolatzeak lehentasuna emango die gizarte-premia handienak dituzten sektoreei, irisgarritasun txikiagoa dutenei edo zaintza-karga handiagoa dutenei, zuzkidura publikoen banaketa ekitatiboa bermatuz.

5. Funtzio anitzeko eta komunitate-izaerako ekipamenduak bultzatzea.

- a) Erabilera mistoko ekipamenduak sustatuko dira, hezkuntza-, kultura-, gizarte-, aisialdi- eta zaintza-funtzioak barne hartzen dituztenak, udalerraren eskalara egokituak eta hiri-eremu desberdinetatik irisgarriak.
- b) Kudeaketa partekatuko edo komunitarioko ereduak bultzatuko dira, pertenezia-zentzua, errotze soziala eta udal-baliabideen optimizazioa indartuko dutenak.

6. Kultura- eta hizkuntza-nortasuna indartzea

- a) Toponimian eta espazio publikoetan euskararen erabilera berreskuratu eta sustatuko da, hizkuntza udalerriko elementu identitario gisa integratuz, eta “arnasgune funtzionalak” garatuz eguneroko bizitzan euskararen erabilera normalizatzeko eremu estrategikoetan.
- b) Euskara Alonsotegiko ondare immaterialaren barruan sartuko da.

6. HELBURUA**BERTAKO EGOILIARREK ETXEBIZITZA DUINA, EGOKIA ETA ESKURAGARRIA ESKURATZEA ZIURTATZEN LAGUNTZEA.**

Etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria eskuratzea bermatzea gizarte-kohesiorako eta hirijasangarritasunerako funtsezko elementua da Alonsotegiren tamainako udalerrri batean. Lehendik dagoen bizitegi-egiturak, antzinatasun desberdineko parke eraikia, hobekuntzabeharrak dituzten etxebizitzak eta garapen berrietarako lurzoru-erabilgarritasun mugatua ezaugarri dituenak, lehentasunez birgaitzera, bizigela-kalitatea hobetzera eta lehendik dagoen parkea optimizatzerako bideratutako etxebizitza-politika eskatzen du. Helburu hori ikuspegi bikoitzatik planteatzen da: alde batetik, lehendik dauden etxebizitzaren bizigarritasuneko, irisgarritasuneko eta energia-eraginkortasuneko baldintzak hobetzea; eta, bestetik, zailtasun handienak dituzten kolektiboetako etxebizitza eskuragarria eskuratzea erraztea, hala nola gazteei, adinekoei eta baliabide gutxiago dituzten etxeen unitateei. Hori guztia, lurralde-eraginkortasuneko irizpideetatik abiatuta eta hiri-ehun finkatuaren barruko jarduketeei lehentasuna emanda.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:**1. Bizitegi-parkea birgaitzea eta bizigela-kalteberatasuneko egoerei arreta ematea.**

- a) Lehentasuna emango zaio eraikuntza-defizitak, irisgarritasun-gabeziak edo bizigarritasun-baldintza desegokiak dituzten bizitegi-eremuetan esku hartzeari, eta, beharrezkoa denean, birgaitze-jarduketa fisikoak eta gizarte-laguntzako neurriak konbinatuko dira.
- b) Birgaitze integraleko programak bultzatuko dira, etxebizitzaren egiturazko hobekuntzari, energia-eraginkortasunari, irisgarritasun unibertsalari eta egokitzapen funtzionalari batera heltzen dizkietenak.

2. Etxebizitza babestuetarako lurzorua erresebatzea eta kudeatzea

- a) Antolamendu berriko edo hiri-berrikuntzako eremuetan, etxebizitza babestuetarako lurzoru-erresebak bermatuko dira, garraio publikoarekin, ekipamenduekin eta oinarrizko zerbitzuekin ondo konektatutako eremuetan kokatzeari lehentasuna emanaz.
- b) Dagoeneko sailkatuta eta erabilgarri dauden lurzoruak aktibatzea sustatuko da, espekulazio-prozesuak saihestuz, eta horien kudeaketa —lehentasunez publikoa edo itundua— etxebizitza eskuragarriak modu eraginkorrean sortzera bideratuz.

3. Etxebizitza hutsen edo gutxiegi erabilitakoen parkea mobilizatzea.

- a) Etxebizitza hutsak merkatuan sartzera sustatuko da, bereziki hiri-lurzoru finkatuan, pizgarrien, jabeekiko akordioen, eta bitartekotzako eta alokairu sozialeko programen bidez.
- b) Alokairu eskuragarriko etxebizitza eskuratzea errazteko ekimen espezifikoak bultzatuko dira, bereziki gazteentzat, lehendik dauden higiezinak birgaituz eta berrerabiliz.

4. Etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzea.

- a) Etxebizitza publiko eta pribatuetan birgaitze energetikorako jarduketak sustatuko dira, isolamendua hobetzea, sistema pasiboak txertatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatuz, jasagarritasuneko eta klima-aldaketa arintzeko helburuekin bat etorritik.
- b) Jarduketa guztiek irisgarritasun unibertsaleko irizpideak jasoko dituzte, eta arreta berezia eskainiko zaie hesi arkitektonikoak dituzten bizitegi-eraikin zaharrei.

5. Bizitegi-eskaintzaren dibertsifikazio tipologikoa.

- a) Udalerrian dauden bizitegi-premien aniztasunera egokitutako etxebizitzaeskaintza sustatuko da, adinekoentzako, pertsona bakarreko unitateentzako, guraso bakarreko familientzako eta premia espezifikoak dituzten beste kolektibo batzuentzako tipologia egokiak txertatuz.
- b) Bizitegi-formula alternatiboak bultzatzea baloratuko da, hala nola elkarlaneko etxebizitzak, aldi baterako bizitokiak edo edukitze-eredu berritzaileak, udalerraren eskalarekin eta ezaugarriekin bateragarriak direnak.

6. Kudeaketa publikoa eta erakundeen arteko lankidetzaren etxebizitzaren arloan.

- a) Udalak etxebizitza-politikan agente aktibo gisa duen zeregina indartuko da, bere funtzio erregulatzailean ez ezik, jarduketan eta baliabideen bultzatzaile, bitartekari eta koordinatzaile gisa ere.
- b) Beste administrazio batzuekiko, hirugarren sektoreko erakundeekiko eta gizartesustatzaileekiko lankidetzaren sustatuko da, baterako proiektuak garatzeko eta etxebizitzaren arloko finantzaketa eta laguntza teknikoa eskuratzea errazteko xedearekin.

7. HELBURUA.

HIRI- ETA LURRALDE-EREDUA KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOETARA EGOKITZEA ETA HAREN PREBENTZIOAN ETA ARINTZEAN AURRERA EGITEA.

Udalerrriaren ezaugarriek —ibai-sistemaren presentziak, mendi-hegalen eta haranen topografia konplexuak eta lurzoru naturalen eta basokoen proportzio handiak markatuta— hainbat arriskuren aurrean erresilientzia-irizpideak txertatzea bereziki nabarmentzen dute, hala nola uholdeen, prezipitazio handien gertakarien, bero-boladen eta ingurumen-kalteberatasuna areagotzetik eratorritako ondorioen aurrean. Helburu honek hiri-ehunak eta biztanleek arrisku horien aurrean duten esposizioa murriztea lortu nahi du, eta, aldi berean, plangintza klimaaldaketa arintzeko tresna aktibo bihurtzea ere, energia-eraginkortasuneko, mugikortasun jasangarriko, naturan oinarritutako irtenbideetako eta baliabideen kudeaketa arduratsuko irizpideak txertatuz, karbonoan baxua den hiri-eredu trinko batekin koherentzian.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. **Klima-aldaketarekin lotutako arriskueta egokitutako hirigintza-plangintza.**
 - a) Arrisku natural esanguratsuek eragindako eremuak hiri-hazkundeko prozesuetatik kanpo geratuko dira, bereziki ibai-sareari lotutako uholde-eremuak eta baldintzatzaile geotekniko kaltegarriak dituzten lurzoruak, eta, ahal dela, espazio libreetarako, ingurumen-sistemarako edo azpiegitura berdeetarako erabiliko dira.
 - b) Hirigintza-antolamenduak erresilientzia-irizpideak jasoko ditu hiri-jarduketan diseinuan, eremu seguruetan kokatzea eta udaleko ingurumen-sisteman behar bezala integratzea lehenetsiz.
2. **Tokiko erresilientzia indartzea naturan oinarritutako irtenbideen bidez.**
 - a) Azpiegitura berdea hiri-ehunan eta hiri-periferiakoan integratzea bultzatuko da, korridore ekologikoen, eremu iragazkorren eta hiri-landarediaren bidez, erregulazio termikoari, biodibertsitatearen hobekuntzari eta jariatzeen murrizketari lagunduz.
 - b) Hiri-drainatze jasangarriko irtenbideak (HDJS) ezartzea sustatuko da, hala nola euri-urak atxikitze eremuak, zoladura iragazkorak eta mikroazpiegitura berdeak, bereziki espazio publikoetan eta berrurbanizazio-jarduketetan.
3. **Energia-eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarriak sustatzea.**
 - a) Lehendik dagoen parke eraikiaren hobekuntza energetikorako programak bultzatuko dira, antzinatasun handiena duten bizitegi-eraikinetako eta gizarte premia handienak dituzten eremuetako jarduketei lehentasuna emanez.
 - b) Eraikin berrietan, energia-eraginkortasuneko estandar handiak, irtenbide pasiboak eta aktiboak txertatzea, eta hurbileko energia berriztagarriak erabiltzea sustatuko dira, indarrean dagoen araudiaren eta deskarbonizazio-helburuen arabera.

4. Hirigintza-plangintzatik integratutako ingurumen-kontrola.

- a) Antolamenduak argi-kutsadura, akustikoa eta atmosferikoa prebenitzeko eta murrizteko neurriak jasoko ditu, bai eta hondakinak behar bezala kudeatzekoak ere, hirigintza-araudian eta hiri-diseinuko irizpideetan txertatuz.
- b) Urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuek, beren formulazio-fasetik, horien ingurumen- eta klima-ondorioak ebaluatu beharko dituzte, jasangarritasun- eta erresilientzia-helburuekin bateragarriak direla bermatuz.

5. Uraren eta hondakinen kudeaketa jasagarria.

- a) Hiriguneak sortutako hondakin-uren kudeaketa eta arazketa egokia bermatuko da, bai eta sistema hidrikoen babesa ere, osasun publikoaren eta ingurumenkalitatearen oinarritzko elementu gisa.
- b) Hiri-hondakinen eta eraikuntzaren kudeaketan ekonomia zirkularreko irizpideak sustatuko dira, materialak berrerabiltzea, birziklatzea eta azpiegituren bizi-zikloa optimizatzea sustatuz.

6. Karbonoan baxua den hiri-eredu baterantz aurrera egitea.

- a) Karbono-aztarna txikia duen hiri-eredua sustatuko da, hiri-ehunaren trinkotasunean, mugikortasun aktiboan eta garraio publikoan, energiaeraginkortasunean eta ingurumen-inpaktu txikiko erabileren lehentasunean oinarrituta.
- b) Udalerriko ingurumen- eta energia-portaera aldizka ebaluatzeko aukera emango duten jarraipen-adierazleak ezarriko dira, klima-aldaketaren eraginen aurrean egokitzen den plangintza bat erraztuz.

8. HELBURUA

INGURUMEN-SISTEMARI PROTAGONISMOA EMATEA ANTOLAMENDU OROKORRAREN EREDUAN, UDAL-AZPIEGITURA BERDEA ZAINDUZ ETA INDARTUZ.

Ingurumen-sistema eta azpiegitura berdea ez dira hondar-espaziotzat edo osagarritzat hartu behar hirigintza-plangintzan, baizik eta lurraldearen funtsezko egituratzat, oreka ekologikoa, nekazaritza-funtzionaltasuna eta klima-aldaketara egokitzeko gaitasuna bermatzen dituztenak. Ingurumen-balio nabarmenak dituzten udalerrietan, hala nola Alonsotegin, helburu horrek garrantzi berezia du, jasangarritasunean, erresilientzian eta ziklo naturalekiko errespetuan oinarritutako lurralde-antolamenduaren ikuspegian sartzen baita. Ingurumen-sistemari protagonismoa emateak haren balio ekologikoa, soziala eta paisajistikoa aitortzea dakar, bai eta hiri-ereduan modu aktiboan txertatzea ere, hiri-lurzorua, lurzoru urbanizaezina eta sistema naturalak azpiegitura berde jarraitu eta koherente batean artikulatuz, udalerraren lurraldenortasuna eta horren epe luzerako jasangarritasuna indartuko dituena.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:**1. Ingurumen-sistemaren egiturazko integrazioa hirigintza-antolamenduan.**

- a) Ingurumen-sistema lehentasunezko lurralde-azpiegitura gisa aitortuko da antolamendu-tresnen multzoan, eta hiri- eta lurralde-ereduan duen eginkizun egituratzailea definituko da.
- b) Udal-lurraldea osatzen duten elementu natural nagusiak identifikatu, babestu eta horien balioa azpimarratuko da, hala nola korridore ekologikoak, baso-masak, ibaiibilguak, ibaiertzeko espazioak eta ingurumen- eta paisaia-balioa duten lurzorua.
- c) Azpiegitura berde interkonektatu bat diseinatuko da, hiri-sistema ingurune naturalarekin artikulatuko duena, ingurumen-funtzioak, drainatze-funtzioak, konektibitate ekologikokoak, mugikortasun bigunekoak eta aisia-erabilera bateragarrikoak bermatuz.

2. Hiri-ertza trantsizio ekologikoko espazio gisa tratatzea.

- a) Naturalizazioko eta ingurumen-hobekuntzako jarduketak hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizaezinaren arteko ukitze-eremuetan sustatuko dira, urbanizazioprozesuen aurrean trantsizio- eta moteltze-espazio gisa konfiguraturaz.
- b) Jarduketa horiek erabilera bateragarriak integratu ahal izango dituzte, hala nola oinezkoentzako ibilbideak, naturako aisia-espazioak, hezkuntza-eremuak edo hiribaratzeak, betiere ingurune ingurumen-balioak arriskuan jartzen ez badituzte.

3. Lurzoru urbanizaezinaren ekologia-, baso- eta kultura-funtzioak zaintzea.

- a) Lurzoru urbanizaezinak ekosistema naturalen, baso-espazioen, paisaiaren eta kultura-ondarearen euskarri gisa duen multifuntzionaltasuna bermatuko da, klimaaldaketaren aurrean baliabide estrategiko gisa duen eginkizuna aitortuz.
- b) Lurzoru horiek urbanizatzeko eta zatikatzeko prozesuak mugatuko dira, eta lehentasuna emango zaie osotasun ekologikoari eta zerbitzu ekosistemikoak hornitzeko ahalmenari eusten dieten erabilerei.

4. Zatiketa ekologikoa prebenitzea eta lurralde-konektibitatea indartzea.

- a) Azpiegitura edo hirigintza-jarduketa berriek ingurumen-sisteman hesiak edo etenak sortzea saihestuko da, korridore ekologikoen eta naturaguneen jarraitutasuna bermatuz.
- b) Plangintzak konektibitate ekologikoko irizpideak jasoko ditu, korridore berdeen, fauna-pasabideen eta paisaia-trantsizioko eremuen bidez, batez ere lehendik dauden azpiegiturek eragindako eremuetan.

5. Balio natural edo produktibo garrantzitsuak dituzten lurzorua babestea.

- a) Ingurumen-, baso- edo ekoizpen-balio esanguratsuak erakusten dituzten lurzorua kontserbatuko dira, nahiz eta gaur egun ustiapenean ez egon, duten ekologia- eta paisaia-potentziala. edo klima-aldaketara egokitzea, kontuan hartuta.

- b) Beren birsailkapena edo hiri-garapenak edo justifikatu gabeko azpiegiturek horiek okupatzea saihestuko da, haien babesa lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan eta lurralde-jasangarritasuneko estrategia globalean txertatuz.

9. HELBURUA.

KULTURA-ONDAREA ETA PAISAIA KONTSERBATZEA, BABESTEA ETA HORIEN BALIOA AZPIMARRATZEA.

Kultura-ondarea eta paisaia Alonsotegiko lurralde-nortasunaren funtsezko osagaiak dira, eta haren bilakaera historikoari nahiz natura- eta landa-ingurunearen eraketari lotuta daude. Balio horiek ez dira soilik iraganeko elementu gisa ulertu behar, baizik eta baliabide bizi gisa ere bai, hiri-kalitateari, pertenezia-sentimenduari eta hiri- eta lurralde-ereduaren jasangarritasunari laguntzen diotenak. Helburu honek ondare arkitektoniko, etnografiko, arkeologiko, natural eta paisajistikoaren kontserbazioarekiko eta balioa azpimarratzearekiko hurbilketa integratu bat lortu nahi du, hirigintza-plangintzan modu aktiboan txertatuz eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumendinamikekin artikulatuz, haren balioak urbanizazioaren ondoriozko eraldaketa-prozesu desagokien eta presioen aurrean babesteko xedearekin.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. Paisaiaren gaineko inpaktu negatiboen prebentzioa.

- a) Eraikin, azpiegitura edo hirigintza-jarduketa berriek sentsibilitate bereziko eremuetan duten paisaia- eta ikus-inpaktua modu sistematikoan ebaluatuko da, paisaia-integratioko azterketen eta ikuspen-analisen bidez.
- b) Haustura morfologikoak, bisten aldaketa esanguratsuak edo kalitate eszenikoa galtzea sortzen duten esku-hartzeak mugatu, baldintzatu edo bideratuko dira, batez ere hiri-ertzetan eta natura- eta landa-ingurunearekiko trantsizio-eremuetan.

2. Landa- eta natura-paisaiaren kalitatea eta dibertsitatea kontserbatzea.

- a) Baso-, landa- eta erabilera tradizionalei lotutako paisaiak babestuko dira, udalerriko kultura-ondarearen eta lurralde-nortasunaren zati gisa, antolamenduan eta azpiegitura berdean integratuz.
- b) Presio antropiko handienaren pean dauden paisaiak kontserbatzea lehenetsiko da, hala nola hiri-periferiako eremuak, bide historikoei lotutako inguruneak, elementu hidrauliko tradizionalak edo balio etnografikoa duten espazioak, haien balio ekologikoa, kulturala eta paisajistikoa aitortuz.

3. Ondarearekiko eta paisaiarekiko sentikorra den hirigintza-plangintza.

- a) Ondare- eta paisaia-dimentsioa hirigintza-plangintzaren maila guztietan zeharka txertatuko da, lurzoruaren kokapenari, antolamenduari eta erabilerari buruzko erabakiak dauden balioak zaintzearekin bateragarriak direla ziurtatuz.
- b) Ondarearen eta paisaiaren kartografia integratua egitea eta eguneratzea sustatuko da, proiektuak ebaluatzeko, hirigintza-erabakiak hartzeko eta babesteko eta balioa azpimarratzeko estrategiak diseinatzeko oinarri izan dadin.

4. Ondarearen balioa azpimarratzea eta parte-hartze soziala.

- a) Ondare-babesa sentsibilizazioko, ondare-hezkuntzako eta herritarren partaidetzako ekintzekin osatuko da, ondarearen eta paisaiaren kontserbazioan ezagutza, estimua eta inplikazio soziala indartzera orientatuak.
- b) Dagoen ondarea modu jasangarrian berrerabiltzeko proiektuak sustatuko dira, kultura-, hezkuntza-, gizarte- edo komunitate-helburuekin, betiere haren balioen kontserbazioa bermatzen badute, bai eta udalerrarentzako baliabide aktibo gisa duen funtzioa indartzen badute ere.

10. HELBURUA.

JARDUERA EKONOMIKOAK HIRIGINTZA-ANTOLAMENDU OROKORREAN BEHAR BEZALA TXERTATZEN DIRELA ZIURTATZEA, GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA FAVORATUZ, JASANGARRITASUNAREKIN HARMONIAN.

Tokiko garapen ekonomikoak Alonsotegiko hiri- eta lurralde-ereduaren egiturazko zati izan behar du, bere eskala txikiko udalerriko izaera, Bilboko metropoli-eremuan duen integrazio funtzionala, eta bizitegi-, zerbitzu- eta industria-jardueren baita natura-inguruneari lotutakoen baterako existentzia kontuan hartuta. Testuinguru horretan, espazio egokiak, inguruarekin ondo lotuak eta bateragarriak, eta tokiko eta metropoliko produkzio-ehunaren bilakaerara egokitzeko gai direnak eskaintzen dituen hirigintza-antolamendua funtsezkoa da. Helburu honek plangintza integratu bat planteatzen du, jarduera ekonomikoek enplegua, gizarte-kohesioa eta hiri-bizitasuna sortzen dituzten aldetik duten funtzio estrategikoa aitortuko duena, haien ezarpena eta garapena sustatuz, honako irizpide hauetatik abiatuta: lurralde-eraginkortasuna, hiri-oreka, ingurumenbateragarritasuna eta hiri-kalitatea.

Ikuspegia eta irizpide nagusiak:

1. Dauden ekoizpen-eremuen egokitzapena eta hobekuntza funtzionala.

- a) Dauden ekoizpen-eremuen hobekuntza eta modernizazioa sustatuko da, haien irisgarritasuna, zerbitzuak eta azpiegiturak optimizatuz, eta jasangarritasunari, energia-eraginkortasunari eta ekonomia zirkularrari buruzko irizpideak txertatuz.
- b) Ekoizpen-espazio zaharrituen edo gutxiegi erabilitakoen egokitzapena eta birmoldaketa erraztuko da, tokiko ekonomia-sarea indartuko duten logistika-, teknologia-, prestakuntza- edo hirugarren sektoreko izaera duten erabilera bateragarriak sartzea ahalbidetuz.

2. Hurbileko merkataritza hiri-egituran indartzea.

- a) Tokiko eta hurbileko merkataritza hiri-zentralitateko eremuetan sustatuko da, espazio publikoa hobetzeko, oinezkoentzako irisgarritasuneko eta bizitegiehunean integratutako merkataritza-jarduerari laguntzeko jarduketan bidez.
- b) Merkataritza-jarduera berrien ezarpena hiri-ereduarekin modu ordenatuan eta koherentean orientatuko da, erabileren nahasketa, zentraltasuna eta mugikortasun jasangarria faboratuz.

3. Jarduera ekonomikoen bateragarritasuna natura- eta bizitegi-ingurunearekin.

- a) Jarduera ekonomikoen ezarpena udalerriko ingurumen-, paisaia- eta bizitegi-balioekin bateragarria dela bermatuko da, horien kokapena, eskala eta integrazioa arautuko duten hirigintza-irizpideak ezarriz.
- b) Natura- edo landa-inguruneari lotutako jardueren kasuan, tokiko balio-kateak indartzen dituztenak eta ingurunean errespetuz integratzen direnak lehenetsiko dira.

4. Ondarearekin, aisiarekin eta turismo jasagarriarekin lotutako jarduerak garatzea.

- a) Ondare-, natura- eta paisaia-baliabideen balioa azpimarratzea faboratuko da, inpaktu txikiko ekimen ekonomikoen bidez, aisialdiarekin, kulturarekin edo turismo jasagarriarekin lotutakoak eta udalerraren eskalarekin bateragarriak direnak.
- b) Turismo-erabileren ezarpena arautuko da, bereziki, bizitegi-eremuan, ohiko etxebizitzarako sarbidea zaintzeko, bai eta egoiliarren eta jarduera ekonomikoen arteko bizikidetzaren bermatzeko.

5. Arau-malgutasuna eta jarduera ekonomikorako konektibitatearen hobekuntza.

- a) Hirigintza-araudiak jarduera ekonomikoen bilakaera eta egokitzapena ahalbidetuko dituzten malgutasun-irizpideak jasoko ditu, ekoizpen-dinamikarekin eta berrikuntzarekin bateraezinak diren erabilera-zurruntasunak saihestuz.
- b) Ekoizpen-espazioen konektagarritasun fisiko eta digital egokia bermatuko da, garraio-, komunikazio- eta zerbitzu-sareak indartuz, lurralde-ereduarekin eta metropoli-eremuarekin koherentzian.

HAP 
Alonsotegi



Ayuntamiento de
Alonsotegi

TERRITORIO  CIUDAD SLP

TAPER

2026eko otsaila